

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

4583

EBAZPENA, 2022ko urriaren 13koa, Erakunde Harremanetarako sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko datu irekiak berrerabiltzeko ideia onenen sariak ematen dituena.

2022ko ekainaren 20ko Aginduak ezarritakoarekin jarraituz (Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko datu irekiak berrerabiltzeko ideia onenentarako sarien laugarren edizioaren deialdia onartzen duena), eta behin epaimahaiak egindako proposamena aztertuta, zortzigarren oinarria aplikatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko datu irekiak berrerabiltzeko ideiarik onenaren saria ematea, hau da, egiaztapen-diploma eta 5.000 euro, hurrengo proiektuari:

Eskatzaileak: Adriana Aguirre Such, Mathilde Marengo eta Iacopo Neri.

Proiektuaren izena: «LUR: un DSS para la planificación estratégica sostenible basado en el valor multifuncional del suelo».

Balorazioa: 14,56 puntu 20tik.

Bigarrena.– Bigarren puntuaziorik onena lortu duen ideiarik bigarren saria ematea, hau da, egiaztapen-diploma eta 3.000 euro, hurrengo proiektuari:

Eskatzaileak: Sergio Díaz Martínez eta Antonio José Sáez González.

Proiektuaren izena: «Con OpenData mi alergia ya no es un problema».

Balorazioa: 13,57 puntu 20tik.

Hirugarrena.– Proiektuetako bakoitzerako Epaimahaiak egindako balioespenak eranskinean argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsioa jar dezakete sail bereko sailburuaren aurrean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

Seigarrena.– Saritutako pertsonak saria onartu duela berriaz eta idatziz jakinarazi beharko du 3 egun naturaleko epean, emakidaren ebazpena argitaratzen denetik aurrera. Horretarako, saria onartzeko inprimakia izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren «Nire karpeta» atalean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 13a.

Erakunde Harremanetarako sailburuordea,
JONE BERRIOZABAL BOVEDA.

2022ko urriaren 25a, astearta

ERANSKINA

Esp. zk.	Eskatzailea	Proiektuaren izena	Balorazioa								
			Balio publiko eta soziala	Balio ekonomikoa	Izaera berritzailea	Bideragarritasuna	Baliagarritasuna	Kalitatea eta argitasuna	Bozketa	Balorazioa guztira	
			0-3,5	0-3	0-3	0-3	0-3	0-3	0-3	0-1,5	0-20
1	Carmelo Iglesias Sedano	3dGeoBizirik	1,5	1,07	1,07	2,07	1,28	1,36	1,36	0,09	8,45
2	Josu del Campo Echeverría y Jon Macías Umeréz	Haritik Hirira	2,28	1,28	1,21	2	1,78	1,36	1,36	0,05	9,98
3	Mónica Arue Gabarain y David Sustaeta López	Gazte ON	2,38	1,68	1,32	1,93	2,07	1,93	1,93	0,76	12,07
4	Openslot, S.L.	Predicción ocupación parkings de Donostia	1,93	1,78	1,43	1,71	1,86	0,93	0,93	0,06	9,70
5	Sergio Diaz Martínez y Antonio José Sáez González	Con OpenData mi alergia ya no es un problema	2,36	1,5	1,57	2,36	2,28	2	2	1,5	13,57
6	Adriana Aguirre Such, Mathilde Marengo y Iacopo Neri	LUR: Un DSS para la planificación estratégica sostenible basado en el valor multifuncional del suelo	2,64	2,36	2,78	1,93	2	2,36	2,36	0,49	14,56
7	Jon Ortega Uzquiaga	Cuatro de mando de la actualidad energética en Euskadi	2,43	2	1,57	1,07	2,28	1,78	1,78	0,09	11,23